



PORTUGALETEKO ESTABLEZIMENDUEN IREKIERA BERRIETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO UDAL PROGRAMA 2018

PORTUGALETEKO UDALAREN MERKATARITZA SAILA

Xedea

Establezimenduak berritzeko eta modernizatzeko lanak sostengatzea. Hala, herrian negozio berriak irekitzea sustatuko da.

Onuradunak:

Portugaleten kalera jotzen duten establezimenduak dituzten merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako enpresa txikiak, eskaera aurkezteko orduan jarduera ekonomikoan aritzen direnak, Ekonomia-Jardueren gaineko Zergan **gehienezko antzintasuna 2017ko urtarrilaren 1ekoa dutelarik.**

Enpresaren jarduera nagusiak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion talde edota idazpuruetak baten barruan egon behar du. Talde edota idazpuruak honako hauek dira:

- 64.atala (647.3 eta 647.4 izan ezik) } Txikizkako merkataritza
- 65. atalala (655 izan ezik) }
- 671, 672 eta 673 atalak – Jatetxeak, Kafetegiak eta Tabernak
- 69. atala (692 izan ezik)- Konponketak
- 97.atala (974 eta 979 izan ezik) – Zerbitzu pertsonalak

Diruz lagun daitezkeen proiektuak

Merkataritza-lokalen barruko eta kanpoko aldeak egokitzeko lanak, mugikortasun urriko herritarrei sarbidea errazteko oztopo arkitektonikoak kentzeko berritze-lanak, segurtasun- eta irisgarritasun-neurriak ezartzea, makineria elektronikoa edo mekanikoa, altzariak eta merkataritzako ekipamendua, ekipamendu informatikoak, softwarea, STak, kutxa erregistratzaileak eta barra-irakurgailuak.

Onartutako gutxieneko inbertsioa 700 eurokoa da. Ez da inola ere diruz lagunduko ez merkataritzako lokalik ezta garraiobide- elementurik ere erostea. *Leasing* edo *renting* bidezko ekipamendua ere ezin izango da eskuratu.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Portugaleteko Udalak inbertsio onargarriaren % **30 diruz lagunduko du gehienez establezimenduko eta urteko 2000 euro direlarik.**

Inbertsio onargarriaren gaineko aurreko ehuneko **areagotuz joan daiteke** baldin eta establezimenduak ondorengo inguruabar hauetako bat egiaztatzen badu:

-Bost (5) puntu gehigarri baldin eta Renova programan parte hartu duela edo parte hartuko duela egiaztatzen badu. Halaber, Udalak sektoreari zuzendu dion Prestakuntza Planaren barruko hiru jardueratan gutxienez parte hartu badu.

-Hiru (3) puntu gehigarri baldin eta herriko **merkatari-elkarteren batekin loturaren** bat duela egiaztatzen badu.

Diru-laguntzaren ehuneko ezin izango da inola ere izan onartutako inbertsio osoaren % 35 baino gehiago izan.

Inbertsioaren betekizunak

2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko urriaren 31ra bitartean eginiko inbertsioak diruz lagunduko dira. Elementu berriak izan behar dira, enpresak berak egin ez dituenak eta Portugalete udalerrian kalera jotzen duten establezimenduetan kokatuak.

Eskaerak egiteko epea

2018ko urriaren 31ra arte edo funtsak agortu arte. Informazioa eta eskaera-eredua tokiotan egongo da eskuragarri: **Portugaleteko Udalaren Erregistro Orokorrean, Merkataritzako Bulego Teknikoan eta Herritarren Arretarako Bulegoan.** Ondoko webguneetan ere egongo da: **www.portugalete.org** eta **www.portugaletecomercial.org**.